

2003KO AZAROAREN 27KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hiruko azaroaren hogeita zazpian, iluntzeko zazpietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Gorka Lamy Insausti, Juan Manuel Serna Portugal, Alejandro Crespo Blanco eta Angel Olaso Villalba.

Inazio Estensoro Eskisabel eta Xabier Arrasate Aierbe zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak, bilkurari hasiera eman ondoren, eguneko gai zerrendatik kanpo dagoen Gesto por la Paz taldeak aurkeztutako mozio bat eztabaidatzea planteatzen du eta Osoko Bilkurak ontzat ematen du guztien adostasunarekin.

I.- AURREKO AKTA.-

Jarraian bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2003ko urriaren 30ean egindako bilkurako akta.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du ordenantza fiskalen aldaketa puntuan, berak Alkatetzaz emandako diru-laguntzei buruz hitzegin zuela baita ere eta ez dela jasotzen.

Alkateak esaten du berak esan zuela ez zirela Alkatetzaz emandakoak baizik eta Gobernu Batzordean onartutakoak.

Salbuespen hauek egin ondoren, gainontzean, akta idatzita dagoen moduan onartzen da guztien adostasunarekin.

II.- ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- LAZKAOKO UDALEKO KOLEKTOREETAKO ISURKETAK ARAUTZEN DITUEN ARAUTEGIA.-

Jarraian Lazkaoko Udaleko kolektoreetara isurketak arautuko dituen Arautegia aurkezten da bere onarpenera.

Arautegi honen helburua herri estolderi sarera egindako hondakin-uren isurketak araupetzea da, xedeak ondoren adierazitakoak izanik.

...///...

- Sarea eta dagozkion instalazio osagarriak babestea.
- Ustiapeneko eta mantenimenduko pertsonalaren segurtasuna bermatzea.
- Araztegiko arazketa biologikoaren prozesuak ez etetzea edo eragozte.
- Efluenteen eta/edo ur-hartzailearentzako kalitate-helburuak betetzea, hain zuzen ere Organo Eskudunak ezarritakoak.
- Lohiak hondakin toxiko arriskutsu gisa sailkatu ez daitezen bermatzea.
- Araudi hau, Lazkaoko udalerrian orain edo etorkizunean jardunean jarriko diren instalazio, establezimendu, jarduera, industria edo biltegi, publiko eta pribatuei, jabea edozein delarik, ezartzekoa da.

Udal Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, 11 botu, eta beraz legezko gehiengo osoaren aldeko botuarekin, zera erabakitzen du:

- 1.- Lazkaoko Udaleko kolektoreetara isurketak arautuko dituen Arautegia, bere espedientean aurkitzen dena, haserakoz onartzea.
- 2.- Arautegia jendaurreko erakustaldian jartzea hogeita hamar lanegunetako denboraldian, alegazio ondorioetarako.
- 3.- Jendaurreko erakustaldi denboraldian inolako alegaziorik aurkeztuko ez balitz, haserako onarpena behin betikoa bihurtukoa da akordio espreso berri baten beharrik gabe.

IV.- 2003KO AURREKONTUARI KREDITU ALDAKETAK.-

2003ko aurrekontuan dauden gastuen partidetak kredituak beharrezkoak diren gastuei aurre egiteko adinakoak ez direnez, ondorengo kreditu aldaketak planteatzen dira:

- Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako 2 zbk.dun Espedientea onesteko proposamena.

Udal honetako Aurrekontua afektatzen duen Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako Espedientea irakurri ondoren.

Era berean, Haziendako Batzorde Informatzaileak formulatutako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du Hazienda Batzordean euskerazko zirriborroa jaso zutela eta Eguneko Gai Zerrendarekin gaztelerazkoa eta gaia aztertu dutela baina ez beraiek nahiko luketen sakontasunarekin; esaten du baita ere partida batzuekin ados daudela baina ez horrela beste batzuekin eta aurrekontuaren aurka bozkatu zuten orain abstenitu egingo direla.

Dagokion eztabaidaren ondoren botutara jarri eta, aldeko 8 botu (EAJ, EA), aurkako boturik gabe eta 3 abstentzioz (PSE-EE, PP), honako hau

...///...

...///...

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honetako aribideko ekitaldiko Aurrekontua afektatzen duen Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espediente onestea, formulatutako proposamenaren eta ondoko Kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU-GEHIKUNTZAK

Kapitulua k	Izendapena	Igoerak
I	Pertsonal gastuak	69.150,00 €
II	Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak	256.950,00 €
IV	Transferentzia arruntak	5.000,00 €
VI	Inbertsio errealak	582.100,00 €
VII	Kapital transferentziak	67.700,00 €
VIII	Finantza Aktiboak	1.000,00 €
IGOERAK GUZTIRA		981.900,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua k	Izendapena	Zenbatekoa
VIII	Finantza Aktiboak	981.900,00 €
GUZTIRA		981.900,00 €

Bigarren.- Jendaurreko informaziorako tramitean jar bedi, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

- Kreditu Transferentzi bidezko Kreditu-Aldaketarako 1 zbk.dun Espedientea onesteko proposamena.

Udal honetako Aurrekontua afektatzen duen Kreditu Transferentzi bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako Espedientea irakurri ondoren.

...///...

...///...

Era berean, Haziendako Batzorde Informatzaileak formulatutako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Aurreko puntuan emandako arrazoi berarengatik eta dagokion eztabaidaren ondoren botutara jarri eta, aldeko 8 botu (EAJ, EA), aurkako boturik gabe eta 3 abstentzioz (PSE-EE, PP), honako hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honetako aribideko ekitaldiko Aurrekontua afektatzen duen Kreditu Transfere-
rentzi bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espediente onestea, formulatutako pro-
posamenaren eta ondoko Kapitulumakako laburpenaren arabera:

KREDITU-GEHIKUNTZAK

Kapitulua k	Izendapena	IGOERAK
II	Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak	100.000,00 €
IGOERAK GUZTIRA		100.000,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua k	Izendapena	Zenbatekoa
IV	Transferentzia arruntak	100.000,00 €
GUZTIRA		100.000,00 €

Bigarren.- Jendaurreko informaziorako tramitean jar bedi, erreklamazioen ondorioe-
tarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da.
Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman
beharko zaizkio.

V.- LAZKAO LANTZEN, S.A.REN TXOSTENA ETA ESTATUTUAK BEHIN-BETIKOZ ONARTzea.-

Udal Osoko Bilkurak, 2003ko irailaren 25ean egindako batzarraldian, Lazkao Lan-
tzen, S.A. eratzeke Azterketa-Batzordearen Txostena haserakoz onartzea erabaki zuen.

Txosten hori jendaurrean egon da 30 egunetako epean eta denboraldi horretan
Olaso zinegotziak (PP) aurkeztutako enmendakin idatziaz kanpo ez da bestelako
alegaziorik aurkeztu.

...///...

...///...

Alkateak esaten du haserako onarpenean emandako akordioarekin jarraitzen duela eta Olaso zinegotziari esaten dio inolako komentariarik egin nahiko badu ba egiteko.

Olaso zinegotziak (PP), esaten du kontutan hartuak izan daitezzen iradokizunak honako hauek direla: Goierriko Zatikako Lurralde Egistasmoaren edukinak, Alkateari adierazi dion bezala, lurralde osoaren osagarri izan beharko luke, baina Elkartea udalerrira bakarrik mugatu behar baldin badu, esaten du, ados dagoela bere eraketarekin, nahiz eta berak uste duen osoagoa litzakela lurralde guztiaren mailan egitea; lurzoruaren ikuspuntutik, esaten du, oraindik industri gunea, hiri gunea, landa gunea zein izango diren mugatu gabe dagoenez, proiektua egon zedin komenigarria izango litzakela, eta hori zela aplikatzea komenigarria izango litzakeen beste iradokizunetako bat, elkarteak arrisku gutxiago izan zitzan, eta ondo finkatutako eskakizunak egon zaitezzen eta modu horretan hobeto funtzionatzen arituko ginakela; gerentziaren izendapenari dagokionean, esaten du, bere beldurra zera da, betekizun guztiak betez eta beharrezko neurri guztiak hartuta kontratu blindatua duen izendapena ez ote litzakeen egingo eta horrela gerenteak elkarte horretan Udal honetako kontseilariak izan zezaketen indarra baino indar gehiago izatea, hau da ez zezala administrazio kontseiluak baino indar gehiago hartu, ze behin kontratatatu eta gero mugitzea oso zaila gertatzen den; esaten du baita ere, iradokizun gehiago ere bazituela baina funtzean garrantzitsuenak hauek direla. Gehitzen du, laburbilduz, hauetako punturen bat hobetzea beharrezko egiten dela Osoko Bilkuraren onarpenera jartzeko, zeren besteak beste, berak dakienez behintzat, pisuen beharrei buruzko ebaluaketarik ez dago, egoitzen eskeintza publikoarena edo sustapen librekoarena eta ezta ere epe motzera, ertain edo luzera lurzoruarena ere eta xehetasun hauek estatutueta gehitzea komeniko litzakela.

Alkateak, iradokizun hauen inguruan esaten du, aurreko Osoko Bilkuran eta gai honen inguruan izandako bileretako batean ere, esan zuen bezala, funtsezko ezberdintasun filosofikoa dago estatutuen eta planteatzen diren iradokizunen artean eta beraz bi gauza ezberdinetaz hitzegiten da, eta ondorioz ezinezkoa da iradokizunak estatutueta islatzea. Lehenengo puntuari dagokionean, esaten du, Zatikako Lurralde Planaz hitzegiten dugunean, eta Elkartea Zatikako Plan horren inguruan osatu behar dela esaten denean, esan behar da gaur gaurkoz Zatikako Plan hori zirriborro bat dela eta beraz ez dagoela indarrean eta ez duela inolako loturarik elkarte honekin ez eta ere bere filosofiarekin; esaten du baita ere, elkarte honen filosofia, eta hor legoke funtsezko ezberdintasuna, Lazkaoko hirigintz garapenak sustatzea litzakela eta, beraz, zatikako plan baten esparrua bailara den bitartean ez dauka zentzurik, esaten du baita ere Alkateak Txostenean Egistasmo honi egiten zaizkion aipamenak generikoak direla eta Arau Subsidiarioetako testutik ateratakoak direla, eta Arau Subsidiarioek garatzen ari garen heinean Zatikako Lurralde Egistasmoak esaten duena kontutan hartzen arituko garela baina horrek ez duela esan nahi elkartearen esparrua bailara izan behar duenik eta ez dela asmoa bailarako elkarte bat sortzea, eta hor dagoela Goierri Beheko Industrialdea bailarako industria beharrei erantzuna emateko; lurzoruaren kalifikazioari buruz esaten duenari erantzuten dio esanez bere ustez kontzeptuak nahasten ari dela, elkarte honekin ez dela lurzoru kalifikatzen baizik eta elkarte honekin kalifikatutako lurzoru garatzeaz arituko ginateke, gehitzen du Arau Subsidiarioak Udalak onartzen dituela eta ez litzakela onartuko elkarteak, eta elkarte honek egin behar duena garapena dela eta Udalak agintzen dion kudeaketa; gerentziari buruz esaten duenaren inguruan, esaten du, hasera batean esandakoa errepikatzen duela, eta hurrengo akordio proposamenean ikusiko den bezala, non elkartearen administrazioa eta kudeaketa eramateko enpresa baten kontratazioa lehiaketara ateratzen den, enpresa honi eginkizun zehatz bat ematen zaio eta eginkizun hori amaitzen denean amaitzen da enpresa eta elkartearen arteko

...///...

...///...

harremana eta bitartean ahalmen guztiak administrazio kontseiluaren gain izaten dira; etxebizitzaren beharrei buruzko azterketari dagokionean, esaten du txostenean aipatzen dela azterketa horren beharra, baina hasera batean elkarteak kudeatu behar duen enpresari ematen zaion eginkizuna 1. Sektorea eta 10-12 Hirigintz Areak garatzearena dela, guk hauek direlako planeamendua egin dagoena eta Udalak lursailak dituenak, kudeatzen hasi ahal izateko.

Idazkariak esaten du Udal Korporazioen Zerbitzuen Erreglamenduak bere 73 artikuluan xedatutakoaren arabera, Administrazio Kontseiluaren gehienezko kontseilari kopurua 5ekoa litzakela eta 93. artikulua xedatutakoaren arabera, hauetatik gehienez herena litzakela kontseilari izan daitezkeen Udal Korporazioko kideen kopurua eta ondorioz ilegalitate ohartarazpena egiten du.

Alkateak esaten du estatutuaren kontseilari kopurua seikoa izatea jartzearen helburua udaleko alderdi politiko guztiek elkartean ordezkaritza izan dezaten dela.

Gaiaren inguruko eztabaida zabal baten ondoren, Olasto zinegotziak esaten du alde bozkatuko duela baldin eta enmendakinen laburpena aktan jasota gelditzen bada.

Idazkariak esaten dio Osoko Bilkuran berak esandakoak jasota geldituko direla.

Olasto zinegotziaren eskariz Alkateak agintzen dio onarpena jarriko den hurrengo puntuan, kontratatuko den enpresaren eginkizunen barruan beharren azterketa egitea dela.

Alkateak esaten du administrazio kontseiluaren kontseilari kopuruari dagokionean, behin-betiko proposamena kopuru irekia jartzearena dela, hau da, Administrazio Kontseiluak gutxienez 5 eta gehienez 10eko kontseilari kopurua izango ditu.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du estatutuak onartu egingo dituztela, esaten du baita ere baremoak jartzeak beldurra ematen diela eta beraiek nahiago luketela kontseilari kopurua itxitako zenbaki bat jartzea irekita utzi beharrean.

Alkateak erantzuten dio bere ustez hobe dela irekita uztea zeren hurrengo lege-gintzaldian ez dakigula alderdi gutxiago edo gehiago izango diren.

Udal Osoko Bilkurak, gaia bozketan jartzen du eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, 11 botu, eta beraz legezko gehiengo osoaren aldeko botuarekin, zera erabakitzen du:

- 1.- Lazkao Lantzen, Sozietate Anonimoa eratzeko Txostena eta Estatutuak, bere espedientearen aurkitzen direnak, behin betikoz onartzea.
- 2.- Udalak, Sozietatearen kapitalari dagozkion akzio guztiak harpidetzea eta Txostenean deskribatutako moduan ordaintzea.
- 3.- Administrazio Kontseilua osatzeko honako lagun hauek izendatzea

- Presidente: Felix Urkola Iriarte, Alkatea
- Presidenteorde: Igor Sarriegi Zumarraga, alkateorde (EA)
- Bokala: Juan Manuel Serna Portugal zinegotzia (PSE-EE)

...///...

...///...

- Bokala: Angel Olaso Villalba (PP)
- Bokala: Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia (EAJ)
- Bokala: Inazio Barandiaran Aldasoro, Hirigintza Batzordeko Presidentea

Idazkari: Iñaki Eskisabel Zurututza, Lazkaoko Udalaren idazkaria, eta honen ezean bere legezko ordezkaria.

4.- Felix Urkola Iriarte Alkatea ahalmentzea, Elkartea eratzeko eskritura izenpetu dezan, Elkartea Merkatal Erregistroan inskribatzeko eta Elkartea eratzeko eman beharreko gainontzeko urratsak eman ditzan.

VI.- LAZKAO LANTZEN, S.A.KO BATZAR OROKORRA BIHURTURIK, ELKARTEAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILURAKO KONTSEILARIEN AUKERAKETA, PRESIDENTEA, PRESIDENTE-ORDEA ETA IDAZKARIA AUKERATUZ BAITA ERE.-

Jarraian Udal Osoko Bilkura, Lazkao Lantzen, S.A.ko Batzar Orokor bihurturik eta bertaratutako guztien adostasunarekin, Udal Osoko Bilkurak aukeratutako Administrazio Kontseilua baieztatzea erabakitzen du, honela osatuta gelditzen delarik:

- Presidentea: Felix urkola Iriarte, Alkatea
- Presidenteordea: Igor Sarriegi Zumarraga, alkateordea (EA)
- Bokala: Juan Manuel Serna Portugal zinegotzia (PSE-EE)
- Bokala: Angel Olaso Villalba (PP)
- Bokala: Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia (EAJ)
- Bokala: Inazio Barandiaran Aldasoro, Hirigintza Batzordeko Presidentea

Idazkari: Iñaki Eskisabel Zurututza, Lazkaoko Udalaren idazkaria, eta honen ezean bere legezko ordezkaria.

VII.- LAZKAO LANTZEN, S.A.KO BATZAR OROKOR GISA LAZKAO LANTZEN, S.A. KU-DEATU ETA ADMINISTRATUKO DUEN ENPRESA LEHIAKETA IREKI BIDEZ ESLEITZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA.-

Lazkao Lantzen, S.A. kudeatu eta administratuko duen enpresa kontratatzeko egin den baldintza pleguaren inguruan, bere eginkizunen artean beharren azterketa bat egitearena sartzen da eta baita ere, haseran egin zen zirriborroarekiko 6.000 eurotako behin betiko fidantza sartzen da.

Hori horrela Lazkao Lantzen, S.A. kudeatu eta administratuko duen enpresa lehiaketa bidez esleitzeko izapidatu den kontratazio espedientearen aurrean, Batzar Orokorrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, kontratazio espedientea onartzea erabakitzen du eta esleipena lehiaketa ireki bidez egiteko deialdia egitea.

VIII.- GESTO POR LA PAZ-EKOEN MOZIOA.-

Mozioak honela dio:

“Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundeak hamasei urtetik gora daramatza giza eskubideen babes eta aldarrikapenen alde, bizitzekoa bereziki, gizartea sensibilizatzeko aldera. Harrezkero izan da eta bada, hiritarrok eskubide hauen urraketa salatze bide.

...///...

...///...

Azken urteotan, indarkeria izkutu eta isila ari dira garatzen, euren biktimak beldurrarazten eta inguru pertsonaletik isolatzen Izuikara baliatuz, nork bere jarrera politikoei muzin eragiten die edota ogibidearen zuzentasunaz dudatan jartzen ditu biktimok. Indarkeria mota honi Bakearen Aldeko Koordinakundeak jazarpen indarkeria deritzo.

Bai ETA bai bere aldamenekoak Euskadiko nahiz Nafarroako hainbat pertsona mehatxupean izaten saiatzen dira. Azken baten, estrategia honek helburu zehatza du: pertsona askoren beldurra eta honen ondorioz euren isolamendua lortzea, dela eraso zuzenen bitartez, dela mehatxuak eta jazarpenaren bidez, hauen erru bakarra iritzi edota lanbide zehatz batzuk gauzatzea izanik. Jazarpen indarkeria honek pertsona baten askatasun eta bizitzeko eskubidearen kontrako eraso bat izan ez ezik, guztion elkarbizitza eta askatasunaren aurkako eraso larria ere bada izan.

Erakundeek eta alderdi politikoek, bat eginda, bilatu behar dituzte konponbideak, baina gainontzeko guztiok ere indarkeria mota hau salatu eta jendaurrean arbuia egin behar dugu, hala nola sufritzen dutenei gure elkartasun eta hurbiltzea erakutsi. Zio hori dela eta, Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundeak jazarpen horren kontrako kanpainan dihardu, tokian tokiko ekitaldiak antolatuz, herritarrok elkartasun bideak izan ditzagun.

Oraingo honetan, Goierriko Bakearen aldeko taldeen Batzordeak honelako ekitaldi bat burutuko du. Beasaingo Loinazko San Martin plazan, datorren abenduaren 12an, ostirala, arratsaldeko 8etan, jazarpen indarkeria salatze eta bere biktimei elkartasuna erakusteko ekitaldi bat egingo dugu, *“Si te amenazan, nos agreden. Mehatxua zuri, erasoak guri. No a la violencia de persecución”* duen lelopean.

Honelako ekintzen **helburuak hiru dira:**

- **isila baina ikaragarria den jazarpen indarkeriaz sentsibilizatu,**
- **oso ondorio dramatikoak dituen bortizkeria hau salatu. Bai biktimek bai gizarteak berak ere pairatzen dituzte ondoriook, eta**
- **indarkeria honen biktimei gu guztion elkartasuna erakutsi, duten isolamendu eta zaurgarritasun sentimendua arindu nahian.**

Hau guztia dela-eta, Goierriko Bakearen Aldeko taldeen Batzordeak,

ESKATZEN DU:

1. Aurrean duzuen testua, udalbatzan dauden talde politiko guztiei jakinaraz dakiela eta, eztabaidatu ondoren, Udalaren atxekipena aproba dadila, bertako helburuak izenpetuz.
2. Atxekipena aprobatekotan, udalbatzako ordezkari batek ekitaldian parte har dezala.
3. Atxekipena aprobatekotan, ekitaldi honen berri eman dadila, bai eta publikoki udal honen atxekipena hedatu ere, beti ere ekitaldi honetan herritar guztiei gonbitea eginez.

Gure eskaera kontuan hartuko duzuelakoan eta aldez aurretik zuen arreta eskertuz, agurtu egiten zaitu,

Goierriko Bakearen Aldeko taldeen Batzordea.”

...///...

...///...

Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien adostasunarekin, mozioa onartzea erabakitzen du.

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du iradokizun bat egin nahiko lukeela Alkatetzaren Ebazpenen zerrendaren aurrean eta esaten du ea noiztik norakoak direnean jartzeko garaian zein egunetik zein egunetarakoak diren jarri ote liteken.

Bestalde, Serna zinegotziak baita ere, San Jose auzoan lehen urbanizazio lanak egin zituen kontrata ikusi duela berriro eta hori zergait ote den galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio dauden hodian nondik norakoak ezezagunak direla eta hori begiratzen ari direla.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zortziak eta hogeirenean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dularik.

...///...